

Argitaratzen du



Diru-laguntzaileak



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA



Gipuzkoako Foru Aldundia

Kultura, Gazteria eta Kirol Departamentua
Departamento de Cultura, Juventud y Deporte



Bizkaiko Foru
Aldundia
Diputación
Foral de Bizkaia

Kultura
Saila
Departamento
de Cultura

Sarrera

“Estilo Liburua” izenpean, Praktika Egokien Liburua egitea erabaki zuen Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak (EGK) 2013ko plangintzaren bidez. Besteak beste, bertan eginkizun honen helburuak orokorki definituak izan ziren, hots a) “gai transbertsalak nola landuko diren zehaztea” eta b) “EGK-ren lan egiteko era finkatzea”.

Filosofia honi jarraipena emanez eta eskakizun eta errealitate berrietara egokituz, hona hemen Praktika Egokien Liburua (PEL), bost atal nagusi eta hainbat azpi-atal garrantzitsu dituena. Puntuz puntu, PEL honek bere ezarpenerako neurriak ezartzen ditu, batzuk jada betetzen ari direnak, beste batzuk betetzeko bidean daudenak eta, azkenik, berriak izateagatik hemendik aurrera bete beharko direnak.

PEL-k gomendioak baino arauak ezartzen dituelako, honen edukia oinarritzkoa, logikoa, argia eta errealista da, honen hizkuntza teknikoa eta zuhurra, eta honen orientazioa bateratzailea eta adostasunezkoa.

Egungo eta etorkizuneko EGK-arentzat oso tresna garrantzitsua izan daiteke PEL-a, EGK-ren ikuspegi, balio eta jarduerari jarraipena ematea laguntzen baitu. Honetaz gain erreferentziazko abiapuntua da ere bai, PEL-a bera garatzeko edo neurri zehatzagoak jasoko dituzten beste dokumentu batzuk planteatzeko aukera ematen duelako.

EGK, pertsonentzat

Atal honetan gai ezberdinak biltzen dira: aniztasun funtzionala, dinamizazioa, epeak eta kontziliazioa eta kulturartekotasuna. Hauek guztiek helburu eta ikuspegi berdinak dituzte: pertsonen ongizatea eta pertsonen eskubideak.

EGK-k duen eginkizuna gazteria defendetzea da, baina gazteak gazte izateaz gain, gizakiak ere badira. Hau, begi bistakoa izanda ere, askotan ahaztu edo ezkutatu egiten da beste kontzeptuen izenean.

Horregatik eta egoera pertsonal, fisiko edota kulturei erantzuna emateko nahian, PEL-k hurrengo hau jaso du:

a. Aniztasun funtzionala

- Ahal den neurrian, EGK-ren egoitzen esparru nagusiak pertsonen egoera funtzional guztiei egokituak izango dira.
 - Oraindik egokituta ez dauden esparru fisikoei hobekuntzak egingo zaizkie, ahalmenaren arabera.
- Komunikazioari dagokionean, komunikatzeko behar bereziak dituzten pertsonen EGK-ren partetik hauek asetzeko bideak erraztuko zaizkie.
- Posible denean, dinamikaren baitan janaria(k) badago / badaude, parte hartzaileen balizko behar bereziak kontuan hartzeko, aldeztu aurretik galdetuko da.

- EGK-k antolatzen dituen kanpoko jarduera guztietan aniztasun funtzionala kontuan hartuko da eta alde zuzenaren esparru fisikoen irisgarritasuna bermatuko da.
- EGK-k lantzen dituen ildoetan eta dinamiketan aniztasun funtzionala eta gazteriaren gaia ardatzen artean izango da.

b. Kontziliazioa, dinamizazioa eta epeak

- Partaidetza eta bizitza pertsonala bateragarria izateko helburuarekin, kontziliazioaren aldeko jarrera izango du EGK-k. Horretarako, EGK-n erabakitzen diren dinamikek eta epeak beti barnebiduko dituzte hurrengo bi puntu hauek: besteekiko errespetua eta adostasuna.
 1. Besteekiko errespetua: parte-hartzaile baten eskuragarritasuna eta egoera pertsonala ezberdina izan daitekelako beste batenarekin alderatuta.
 - Pertsona gazte baten bizitzan momentu ezberdinetan inplikazio-maila ezberdinak garatzen direla transbersalki onartuko da EGK-ren baitan.
 2. Adostasuna: dinamika bat edo epeak erabakitzean inplikatuaren adostasuna beharrezkoa izango delako. Partaideen aldetik berezko inplikazioa eskatzen denean erabakia aho batez hartu beharko da.
 3. Denen parte-hartzea: Ahal den neurrian ahalik eta partaide gehienaren inplikazioa bultzatuko da EGK-ren dinamiketan zein jarduera nagusietan, parte-hartzea errazten dituzten tresnak eta dinamikak bilatuz. Generoaren eta gutxiengoen ikuspuntua bereziki zainduko da.
 4. Orokorrean: eraginkortasuna, baliagarritasuna, erantzukizuna, logika, duplizitatearen eza, elkarlana, aipatutako errespetua eta adostasuna izango dira printzipio nagusiak EGK-ren jardura praktikoan.
- Honekin batera, berezko ahalegina egingo du EGK-k gazte eragileen arteko elkarlana sustatzeko bidean, eta aurreko printzipioak ezarri, zeregin horretan jardungo du.

c. Kulturartekotasuna

- EGK euskal gazteen artean dauden kultur ezberdinak jasotzen ahaleginduko da:
 1. Berezko harreman baten bitartez, kulturartekotasuna lantzen duten elkarteak EGK-rekin elkarlanean aritzera bultzatu eta kide bihurtzeko prozesuan lagundu.
 2. EGK-n dauden gazte elkarteek kultur-aniztasuna kontuan har dezaten sentibilizatu, eta gazteei zuzendutako kanpainak burutu.
 3. Errealitate berriei begira, kulturartekotasunaren aldeko gazte elkarte berriak sustatu.

Generoa eta aniztasun afektibo sexuala

EGK-ren baitan, emakumeen eskubideak, ikusgarritasuna eta protagonismoa bermatzeko helburuarekin “Generoa” atala jaso du PEL-k. Honekin batera, aniztasun afektibo sexualari begira hainbat norabide ezarri ditu dokumentuak, Euskadiko Gazteriaren Kontseiluan LGTB pertsonak kolektibo gisa diskriminatuak izan ez daitezen.

Berdintasuna indartzeko nahian, PEL-k hurrengo hau jaso du:

a. Generoa

- EGK-k lantzen dituen ildoetan eta dinamiketan emakume gazteen ikusgarritasuna ardatzen artean izango da beti.
 - Hau dela eta, ateratzen diren idatzizko zein ahozko ondorioetan, ildo edo praktika jakin horretan emakumeen egoera azalduko da.
- Emakumeen eskubideak lantzen dituzten elkarteei berezko babes eskainiko die EGK-k, bai sortuta daudenei, bai sortuko direnei.
- Ahal den neurrian EGK-ren erabakitze-eremu guztietan emakumeak diren kideen ordezkartza %40a baino handiagoa izango da.
- Frogatuta dagoen edozein jarrera matxista bateraezina izango da EGK-n jardutearekin, eta burutzen duenarekiko/dutenekiko antolakuntza-ondorio zuzena izango du.

b. Aniztasun afektibo-sexuala

- LGTB kolektiboak dagozkion eskubide guztiak bermatuta izango ditu EGK-ren baitan:
 - EGK-k lantzen dituen ildoetan eta dinamiketan aniztasun sexuala ardatzen artean izango da beti, eta soilik errealitate heterosexuala(k) kontuan hartzen dituzten ikuspegiak saihestuko dira.
- LGTB kolektiboaren eskubideak lantzen dituen elkarteei berezko babes eskainiko die EGK-k, bai sortuta daudenei, bai sortuko direnei.
- Frogatuta dagoen edozein jarrera homofobo bateraezina izango da EGK-n jardutearekin. Burutzen duenarekiko/dutenekiko antolakuntza-ondorio zuzena izango du.

Euskara eta hizkuntzak

Hizkuntz-testuinguru berezi batean murgiltzen dira gazteak. EGK-k euskararekiko duen konpromisoagatik PEL honek euskara babesteko eta bultzatzeko neurriak ezarri dituen atal hau jaso du, EGK-ren dinamika eta prozedura guzti-guztietan euskara erabili ahal izatea helburu duena.

Gainera, gaztelaniaren eta beste hizkuntzen erabilpena ere bermatzen du atal honek. Euskararen eta hizkuntzen presentzia dinamizatzeko nahian PEL-k ondorengo hau jaso du:

a. Euskarari lehentasuna emango dio EGK-k

- EGK-ren hizkuntza korporatiboa euskara da. Hau dela eta, komunikazio-tresnak, agur ofizialak eta beste edozein jarrera korporatiboa nagusiki euskaraz izango dira.
- EGK-ren idatzizko dokumentu ofizial guztiak euskarazko bertsioa izango dute. Ahalik eta dokumentu gehien euskaraz idatziko dira.
- Ahozko transmisioan euskararen erabilera bermatuko da EGK-ren arduradunen eta teknikarien partetik.
- EGK-k antolatzen dituen batzordeetan, dinamiketan, ekitaldietan, lehiaketetan edo beste edozein jardueretan euskara hutsean hitz egiteko aukera izango dute. Beharrezkoa izatekotan, EGK-ren aldetik euskal elebidunak ez diren pertsonak ulertzeko neurriak ezarriko dira.

b. Gaztelania ere EGK-ren jardueran erabiliko da

- Ahal den neurrian, EGK-ren idatzizko dokumentu ofizial guztiak gaztelaniazko bertsioa izango dute.
- Gaztelania dakiten eta euskara ez dakiten pertsonen aurrean, ahozko transmisioan gaztelaniaren erabilera bermatuko da EGK-ren arduradunen eta teknikarien partetik, euskararekin batera.
- EGK-k antolatzen dituen batzordeetan, dinamiketan, ekitaldietan, lehiaketan edo beste edozein jardueran parte-hartzaileek gazteania hutsean hitz egiteko aukera izango dute, baina euskaraz egiteko aukera ere badutela jakinaraziko zaie.

c. Beste hizkuntzen presentzia ere onartuko da EGK-n

- Nazioarteko harremanak sendotzeko nahian, EGK-ren arduradunen eta teknikarien artean behintzat ingelesez hitz egiteko gai den kide bat egongo da.
 - Hau dela eta, EGK-k antolatzen dituen batzordeetan, dinamiketan, ekitaldietan, lehiaketetan zein beste edozein jardueran beste aukerarik ez dagoen, parte-hartzaileek ingelesez hitz egiteko eskubidea izango dute, eta beharrezkoa bada ingelesez esaten dena itzuliko da.
- Ahal den neurrian, gainerako hizkuntzak erabiltzea ere posible izango da eta EGK-k itzultzeko ahalegina egingo du, beti ere baldintzen arabera.

Ekologia

Ekologiaren inguruan oinarritzkoak diren jardueretan inplikatzeari ezinbestekoa da EGK-ren esparruko erakunde batentzat. Ekologismoaren beharren inguruan gazteen kontzientzia gero eta handiagoa da eta EGK-k honen isla izan behar du.

Horregatik, ingurumena zaintzeko eta EGK erakunde iraunkorra izateko nahian, PEL-k hurrengo hau jaso du:

a. EGK-ren ingurumenari buruzko jarrera hiru kontzeptu hauetan oinarrituko da:

- Murriztapena: Ahalik eta gutxien kontsumitzearen jarrera.
- Berrerabilpena: Produktuei bizitza-zikloa luzatzen dion jarrera.
- Birziklapena: Erabilita dagoen produktu bat berrereskuratzeari aldeko jarrera, prozesu berri bat sortzeko helbururarekin.

b. EGK-ren arduradunek, teknikariek, partaideek eta gonbidatuek aipatutako printzipio hauek praktikara eramateko konpromisoa izango dute.

- Hau dela eta, EGKren jarduera orokorrari, asanbladari, batzordeei eta beste edozein ekintzari materialak, argia, garraioak, zaborra eta gainerako ezaugarriak kontuan hartzen dituen kuota ekologikoak ezartzeko aukera izango du EGK-k.
 - Balizko kuota hauek betetzeko posibleak, erosoak eta gradualak izan beharko dira.

c. Honetaz gain, ingurumenaren zaintza lantzen duten elkarteei berezko babesa eskainiko die EGK-k, bai sortuta daudenei, bai sortuko direnei.

- EGK-k lantzen dituen ildoetan eta dinamikan ingurumena eta ekologia ardatzen artean izango dira beti.

Komunikazioa

Definizioz, komunikazioa informazioa transmititzearen eta jasotzearen jardura da. Bere ezaugarriengatik, informazio asko jasotzen, mugitzen eta sortzen duen esparrua da EGK, barneko eremuan zein kanpokoan.

EGK-arentzat komunikazioa ardatz nagusia den neurrian, honen inguruko oinarritzko neurriak erabakitzea nahitaezkoa da. Hori dela eta, EGK-ren informazioaren transmisio egokia bermatu nahian, eta gazteen ahotsa modu egokienean jasotzeko asmoz, PEL-k hurrengo hau jaso du:

a. Barne-komunikazioa

- Esparru ezberdinen arteko komunikazioa
 1. EGK osatzen duten esparru ezberdinen arteko komunikazioa bermatzeko tresna ezberdinak eta bide zehatzak erabiliko dira, bai gertatutakoaren berri emateko, bai egiten eta egingo dena iragartzeko ere.
 - Tresna ezberdinak eta bide zehatzak hurrengoak dira: Interneta (e-maila, skype-a, sare sozialak..), ahozko komunikazioa (telefonoa, formala den aurrez aurreko ahozko transmisioa...) eta euskarri fisikoak
 - Aipatutako esparruak hurrengoak dira: Batzar Nagusia, Batzorde Iraunkorra, lan-talde teknikoak, EGK-ko lan-taldeak, eta EGK-k sortu lezakeen beste edozein esparru.
 2. Orokorrean, edozein praktika, dinamika, adierazpen publiko, bilera edo agerraldi burutu ostean egindakoaren berri ematen duen euskarria jaso eta elkarbanatuko da.
 - Euskarriak hurrengoak izango dira: idatzizkoak, ikus-entzunezkoak edota irudiak. Egokia den kasu zehatzetan ahozko komunikazioa erabili ahal izango da.
- Esparruaren baitako komunikazioa
 1. Lan talde teknikoari dagokionez, EGK-ren lanaren gaurkotasunean eragin zuzena duen heinean, honen arlo ezberdinen arteko komunikazioa bermatzeko lan-taldeak dituen berezko tresnak eta bideak erabiliko dira.
 2. Aldi berean, Batzorde Iraunkorra osatzen duten kideen arteko komunikazioa bermatzeko bideak erabili behar izango dira.

b. Kanpoko komunikazioa

- Kanpoko komunikazioaren jardueran praktika egokien liburu honetan dauden aurreko jarraibideak aintzat hartuko dira.
- Informazioaren eta iritziaren igorpena EGK-ren aldetik adostua, jarraitua, dosifikatua, koerentea, testuinguruari egokitu eta aproposa izango da.
- EGK-ren kanpoko komunikazioak hiru atal hauek izango ditu: a) EGK-ren ingurukoa b) EGK-ko elkarteena c) EGK-ri dagozkion jarduera esparruena.
- EGK-ren komunikaziorako tresnak (webgunea, sare sozialak, eta prozedura oro har) irizpide tekniko-profesionaletan oinarrituko dira.
- EGK-k duen izaera publikoagatik gardentasuna izango du iparrorratz.

Eranskina: Dinamikak prestatzeko gida-fitxa

Dinamika.	IREKIA ITXIA	
Lehentasunezkoa da dinamika hau?	BAI <input type="checkbox"/>	EZ <input type="checkbox"/>

PLANTEAMENDU OROKORRA

1. Definizioa.	Helburuak zehaztu eta metodologia erabaki. <input type="checkbox"/>
2. Aurrekontua. (Administrazioa-rekin koordinatu).	Beharko den dirua desglosatu eta zenbatu. Bideragarritasuna egiaztatu. <input type="checkbox"/>
3. Agenda eta ordutegia.	Egutegian kontrastatu eta ipini data. <input type="checkbox"/> Ahal izatekotan lurralde bakoitzean dinamika bat egin, bertako elkarte eta gazteak hurbiltzea errazteko. <input type="checkbox"/> Dinamika irekia bada, arratsalde edo ordu egokienetan egiten saiatu, bolondresak joan ahal izateko. <input type="checkbox"/> Dinamikaren iraupena adostu eta zehaztu. <input type="checkbox"/>
4. Hizlariak eta/edo parte-hartzaileak.	Emakumeak lehenestu. Hizlari bat baino gehiago egotekotan emakumeak bertan izatea lehenestu. Parte-hartzaileen artean emakumeen presentzia zaindu ere bai. <input type="checkbox"/> Hizlarien artean euskaraz egitea lehenestu. <input type="checkbox"/> Hizlari eta parte-hartzaile gazteak egotea lehenestu. <input type="checkbox"/>
5. Tokia, tresneria eta materialak.	Tokia erabaki eta erabilgarritasuna konprobatu. Beharrezkoa bada erreserbatu. <input type="checkbox"/> Kaleko ekintza bada eguraldia kontuan hartu. <input type="checkbox"/> Lekuak gutxiengo irisgarritasuna duela konprobatu. <input type="checkbox"/> Erabiliko dituzun baliabideak/ tresnak erabaki, erreserbatu eta hartu. <input type="checkbox"/> Ahal den neurrian, erabiliko diren dokumentuak alde aurretik prestatu eta bidali. <input type="checkbox"/>
6. Komunikazioa. (Komunikazioa-rekin koordinatu).	Komunikazio-ezaugarri guztiak (balizko deialdia, prentsa oharra, prentsaurrekoak, etab) erabaki. <input type="checkbox"/>

DEIALDIA

Nola egin?

1. Erreminta digitalak lehenestu.
(Komunikazioa-rekin koordinatu).

Piztu!

Posta elektronikoa.

Sare sozialak.

Komunikabideak.

2. Euskarri fisikoak erabiltzerakoan argitalpen finkoak lehenestu.
(Komunikazioa-rekin koordinatu).

BerrizBerri.

Aldizkako beste aldizkari edo argitalpenak.

3. Argitalpen propioak sortzea ezinbestekoa bada (kartelak, triptikoak, postalak...).

Nola erabiliko diren aldez-aurretik pentsatu:

nora bidali, non utzi...

Erabiliko direnak bakarrik inprimatu, soberan egon ez daitezten.

Jasangarritasun irizpideak erabili:

Material birziklatua.

Tinta ahalik eta gutxien.

Distirarik gabeko papera.

Deialdi pertsonalizatua (beharrezkoa denean)

1. Gonbidapen pertsonalak egiteko ere erreminta digitalak lehenestu.

E-mail pertsonalak.

2. Telefonoa.

Deitu aurretik, deiazen gaia eta helburua erabaki.

3. Gutunak.

Helbideak egiaztatu.

Nori egin?

1. Elkarreak.

EGK-koak:

- Gaia lantzen dutenak.

- Beste batzuk.

EGK kanpokoak:

- Gaia lantzen dutenak.

- Beste batzuk.

Nola idatzi, zer esan?

1. Generoa.	Emakumeak zein gizonetakoak kontutan izan, ez idatzi denok gizonetakoak bagina bezala, hitz biak ala generikoak erabili. <input type="checkbox"/>
2. Euskara eta hizkuntzak.	Euskara lehenestu. Bi hizkuntza edo gehiagotan idaztekoan, euskara lehen tokian edo ikusgarriagoa egongo da. <input type="checkbox"/>
3. Egoera bereziak aurreratu.	Inork beharrizan berezirik baldin badu, berauek asetzeko eskaera egin dezala erraztu (seme alaben zaintza, janari berezia, itzulpena...). <input type="checkbox"/>
4. Ekologia.	Garraio publikoa iradoki eta loturak dituen mapa bat bidali. <input type="checkbox"/>

DINAMIKAK

1. Prestakuntza.	<p>Lekuak gutxieneko irisgarritasuna duela bertan konprobatu. <input type="checkbox"/></p> <p>Behar diren baliabideak/ tresnak bertan daudela konprobatu. <input type="checkbox"/></p> <p>Beharrizan bereziak (seme alaben zaintza, janari berezia, itzulpena...) modu egokienean kudeatzeko dena prest dagoela konprobatu. <input type="checkbox"/></p> <p>Ahalik eta material gutxien erabili (orrialdeak bi aurpegietatik inprimatu edo bi orrialde aurpegi berdinean inprimatu). <input type="checkbox"/></p>
2. Dinamizazioa eta epeak.	<p>Ordutegia bete eta puntu-puntu dena prest eduki. <input type="checkbox"/></p> <p>Dinamikaren adostutako iraupen logikoa bete. <input type="checkbox"/></p>
3. Denen ahotsa entzutea bermatu.	<p>Talde txikietan hitz egiteko aukera eman. <input type="checkbox"/></p> <p>Talde handietan denek hitz egiteko denbora nahikoa bermatu. <input type="checkbox"/></p> <p>Beharrezkoa denean, esandakoa idatzizko dokumentu batean (akta) jaso. <input type="checkbox"/></p>

BUKATU OSTEAN

- Dena zegoen moduan utzi.
- Utzitako gauzak bere lekuetara bueltatu.
- Lortutako idatzizko dokumentuak (prentsa oharra, akta, laburpenak...) eta dokumentu grafikoak gorde eta behar bezala zabaldu.